

# Giza eskubideen kultura: balantze bat

Jon-Mirena Landa Gorostiza

Giza Eskubide eta Botere Publikoen Unesco Katedraren zuzendaria eta Zuzenbide Penaleko katedraduna (EHU)

**A**urten, abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 75. urteurrena ospatzen dugu. Zuzenbide-arlo batentzat, ordea, bere haurtzarora pasatu berria dela baino askoz gehiago ezin da esan. Gure sistema juridiko osoa, gure kultura-esparruan aro modernoan egonkortu zena, XVIII. eta XIX. mendeen bueltan-edo hasi zen mamitzen eta, beraz, 200 urteko historia luzea du atzean. Giza eskubideen arloa, aitzitik, zuzenbide arlo berri baten moduan sortu zen, askoz beranduago, estatuen gehiegikeriak, abusuak kontrolatzeko. Eta horretarako, lehenik eta behin, mundu osoak jasan behar izan zuen estatu naziak, Italiako estatu faxistak edota inperio militarista japoniarrak, besteak beste, aurrera eraman zuten sarraskia II. Mundu Gerraren aro ilunean. Estatu batek bere makineria boteretsu osoa jendartea modu sistematikoan hiltzeko erabiltzen duenean, krimenik handienak gauzatzen dira: hala nola genozidioa, gizateriaren aurkako krimenak, guda-krimenak edo eraso-krimena gudaren bitartez.

Giza eskubideen sarea, beraz, 1948. urtean josten hasi ginen, Aldarrikapen Unibertsalak eta geroago onartuko ziren 1966ko Nazioarteko Itun biek (bai eskubide zibil eta politikoenak batetik, bai eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalenak bestetik) «munduko konstituzio» baten itunaren hazia osatzen baitute. Estatuez harago sistema bat sortzen da, lehenengo aldiz, hiritar guztiak babesteko asmoz, estatuek beraiek duten botereari mugak jartzeko.

Horregatik ezin dugu iparra galdu. Giza eskubideen kultura eta horren sendotasuna ez da sortuko estatuek bultzatzen dutelako: sortzekotan, jendearen presioz sortuko da, funtsean horren emaitza besterik ez delarik. Eta zentzu horretan orain arte lortu dena pentsaezina zen duela hamarkada batzuk. Nork esango zuen, ba, Putin batek, esaterako, bitan pentsatu behar duela bere herritik atera baino lehen nondik hegan egin beharko duen, atxilotua izan daitekeelako? Nork esango zuen gudan muga argi batzuk egon behar direla eta ez dagoela dena baimenduta, alegia, ezin dela populazio zibila bonbardatu, ezta gatibu hartu trukerako, ezta ospitaleak suntsitu....?

Giza eskubideek justizia-estandar bat osatzen dute, politikaz harago, batzuen eta besteen jarduerara epaitzen laguntzen dutenak. Legitimitate bat osatzen dute. Polarizazio-egoeretan, ez batzuen ez besteen alde egin beharrean, justiziaren eta

biktimen alde egin ahal izateko. Ahalbidetzen dute estatuen lotsa agerian uztea, giza eskubideen urraketa egiten dutenean. Eta lotsa, bai, hura da beraien tresna nagusia: estatuen aurrean ispilu bat jartzearen bitartez, denek ikus dezaten, ikus dezagun, zer ari den egiten.

Giza eskubideek, noski, mugak dituzte. Giza eskubideak aldarrikatzea eta betearaztea ez da gauza bera. Nazioarte mailan ez dago, barruko estatuen jurisdikzioen aldean, estatu-zuzenbide bat, botere-banaketa unibertsalean oinarritzen dena: ez dago legebiltzar bat, indar nahikoa duena onartzen duena betearazteko, ez baitago polizia edota indar unibertsala atzean, ezta halako botere judiziala, demokratikoki sortua eta denontzako. Sistema hori inperfektua da, osatugabea, etengabe egiten diharduena. Baina horren baitan giza eskubideen mekanismoek bere lekua topatu dute, eta, lotsa tresna nagusi bilakaturik, justizia defendatzen ahalgintzen da. Estatuen lotsa guztion begi aurrean jartzea da bere estrategia, jaiotzez: tortura, diskriminazioa, pobrezia... argitara ateratzen.

Estatuek historikoki ez dute lotsa jasaten. Ezin dute onartu herri-plazan, mundu-plazan, torturatzen dutenik, pobrezia mantendu eta elikatzen dutenik, emakume-diskriminazio egiturazkoa sustatzen dutenik, aniztasun funtzionala dutenak edota zaurgarri diren gutxiengoak baztertzeko dituztenik.

Gehiago nahiko genuke. Lotsarazteaz harago, justizia hitz handiekin nahiko genuke: alegia, erantzuleak identifikatzea, egitateen egia aldarrikatzea, zigorrak ezartzea, kalte-ordainak emanaraztea, ez errepikatzen neurri eragingarriak sortzea... Gehiago nahi eta behar dugu. Eta batzuetan lortzen da: 1998. urtez geroztik Erromako Estatutuaren bitartez, Nazioarteko Zigor Auzitegia eratu zenean, zenbait kasutan erantzukizun penala ezar liteke mundu mailan. Esaterako, Gazan egiten ari diren guda-krimenak, gizateriaren aurkako krimenak eta inkulso jardun genozidak, ikertzen ari da aipatu Zigor Auzitegia. Ikertzea bukatuko al da kondena eragingarri batean? Ez dakigu. Baina bidea hasita dago, zigor auzitegia hor dugu, delituen izenak eta izanak definituta, bide prozesala —bermez— prest.

Estatuak kontrolatzea ez da erraza. Estaturik boteretsuenak, are zailagoa. Baina presioz Aldarrikapen Unibertsala 1948. urtean onartu zen bezala, harrezkerotik hainbat eta hainbat Nazioarteko Hitzarmen eta kontrolatzeko mekanismo sortu diren bezala, gaur egun ere jarraitu behar dugu borroka zibilizatu horretan. Ez dezagun espero bakarrik autoritateek edota Nazio Batuek urratsik edo konponbiderik ekartzea. Guk geuk, bakoitzak bere esparruan, giza eskubideen kultura erabili eta bultzatuz gero, aurrera egingo dugu. Bestela zein da alternatiba? ●

## Bat 3Dan



JIRA  
Maialen Akizu

**T**xanpua ematen ari nintzela, behatzen presioak garondoko paretan sakonunea eragin zuen. Ene ba. Arrapaladan dutxatik atera, melenako ileak baztertu eta ispiluan ikusi nuen burezurreko zuloa. Ez nuen minik, ez odol arrastorik; hautsita sentitzen nintzen. Gertatua ulertu guran poliki-poliki sartu nituen zuloan atzamarrak. Burmuinaren mintz likatsua ukitzea espero nuen, baina, kontrara, gogorra zen zerbaitekin egin nuen topo, eta berriz ere krak, metalezko puska bat atera nuen nire baitatik. Albornoza jantzi eta kola emanda pegatu nuen txatala, ilearekin kamuflatu zuloa, eta txapelarekin pasa nuen eguna.

Atzoko egunkariak zekarren hiru enpresa kalte-tuta edo gaixorik dauden ehunak eta organoak birsortzeko 3D inprimagailua garatzen ari direla. Proiektua teknologiarekin jolasteko asmoz abiatu zuten, eta *elektrospinning* teknika landu dute ehunak garatzeko. Akaso izango da burmuineko kolaren ondorio, baina *elektrospinning* irakurrita ezin dut elektro musikarekin spinninga egiten ari diren ehunak besterik imajinatu. Larrituta nabil. Jolasak utzi eta serio hartu dezatela, arren. ●

## Kir-kir



BIRA  
Ainize Madariaga

**J**antokian zabaldu zitzaidan ahalkearen etorbidea. Behin aski izan zen: «Dunbo!». Belarri-zuloak altzairuzko harpe egin ziren, hitzaren oihartzun astuna metal-pisuz emendaturik erori zitzaidan tripa zolaraino. Geroko hilabetez ez naiz oroit, baina amari aplikatu nion protesta-estrategiak eraginkorra behar zukeen, ondoko oroitzapena ospitalekoa baitut: andetan gelarat igan nindutenean, bi ginela berdindatuak; ene panda peluxea eta biok. Ama eta amatxik egin zidaten batzarri: «Gose xirea?». Gose nintzenetz? Gosez hamikatua nintzela: bezperatik barau. Hautan, bizkora meheari aise irabazi zioten ogi xerra potoloek. Huskeria izan zen Dunbok eman zidan mina, gosari hura irensteko ahoa zabaltzeak eman zidanaren aldean. Geroko sufrikario luzeek hamaika aldiz doluarazi didate belarriak itsasteko ebakuntza hura. Dunboren egun hartan belarriak gortu izan banitu... eta amak ene galdeari!

Ene kilkerak zer kantatzen duen galdegin didate Uxue Alberdik eta Begoña Durrutik *Belarriko kilkerria* istorio-bilduma loriagarrian. Hara, kontatu diet enea. ●